



San Martin - Ganekogorta ibilbidea Bilbo Handiko tontorrean

Gorka Vacas



Mendizain aterpetxea.

Ganekogortara igotzeko biderik ezagunena Pagasarri mendiaren hegaletik doana da. Asteburu guztietan, mendizale asko bide horretatik igotzen dira tontorrera. Oraingoan, ordea, Alonsotegi aldetik igotzea proposatzen dizuegu, Enkarterriko herri horretako San Martin auzotik abiatuta.

Errepidetik igoko gara San Martin auzoaren amaieraraino. "Mendizain Aterpetxea" udal-aterpetxeko aparkaleku txikira heldu baino 15 metro lehenago, Ganekogortara eramango gaituen pista hartuko dugu. Hasieran, legarezko pista hori pinudi batetik doa, eta eskinosoaren karranka ozena entzungo dugu etengabe. Bide ugari aurkituko ditugu pistaren alde bietan, baina guk aurrera zuzen jarraituko dugu denbora guztian. Atzean utziko dugu "Pagasarri" markatzen duen lehen seinalea (hainbat bide seinalatzen dituen zurezko zutoin bat). Bigarren seinalera iristen garenean, gure eskuinaldean gorantz doan lurrezko pista hartuko dugu (geziak "Zamaia" markatzen du).

Pista nagusiak gora egiten du apurka-apurka, eskuinalderantz. Pista horretatik joango gara denbora guztian, Zamaiaiko burdina-meatzearen hondakinetara iritsi arte. Meatzearen ahoko amildegi izugarriari begirada bat egin ondoren, aurrera jarraituko dugu, Zamaia eta Gongeda mendien arteko muinoraino.

Muinotik argi ikusten da Ganekogortaren iparraldeko eta ipar-mendebaldeko hegalkartsua. Elur asko dagoenean, Bizkaiko eskiatzaileak malda horre-

tatik irristatzen dira. Ganekoren eta Arrabatzu mendiaren (954 m) arteko lepora igotzen den pista ere ikusten da handik. Pista horretara iristeko, apur bat jaitsi behar dugu, landa txiki bateraino. Hor, elektrizitate-dorre handi bat aurkituko dugu gure bidean.

Landa 560 metro gora dago, eta hortik aurrera oso aldapa gogorrek igo beharko ditugu. Malda leuntzen hasten denean, artadi eder baten albotik igarokogara. Sai arreaketa belatxingak bidelagun hegalariditugula, Ganekogorta eta Arrabatzu mendien arteko lepura hurbilduko gara. Hortik, astiro igoko gara gailur zabaletik, ezkerretarantz, Ganekogortaren tontorrera iritsi arte (998 m). Igo garen bidetik itzuliko gara.

Nola heldu:

- Garraio publikoan: Renfeko trenean edo Bizkaibusen Alonsotegiraino. Hortik, San Martin auzoraino igo behar dugu.
- Autoan: Bilbon A-8 autobidea hartu eta "Balmaseda" irteeratik irten, Trapagaranerantz. Herriaren erdian, Zugaztieta eta gero Peñas Negrako Interpretazio Zentrora doan errepidea hartu.

Ibilbidearen luzera: 12.000 m (Aterpetxetik abiatuta)

Zailtasuna: Ertaina.

Desnibela: 700 m

Oharrak: Haurrekin bazoazte, komeni da mendian ibiltzen ohituta egotea.

Mendizain Aterpetxea

El antiguo refugio del guarda, reformado la temporada pasada por el ayuntamiento de Alonsotegi, es hoy en día el albergue municipal "Mendizain Aterpetxea", a 10 minutos en coche desde el centro de Bilbao. Este bonito albergue de alrededores tranquilos dispone de 4 habitaciones con capacidad para 19 personas, además cuenta con un bar que abre los fines de semana. **Tel.: 635 748 367**